

Ordizian, **bi mila eta zazpiko maiatzaren 10eann** UDALBATZARRAK **OHIKO BILERA** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Alejandra Iturrioz Unzueta and.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Jose L. Ormazabal Garmendia jn.	EAJ	taldea	
J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.	EAJ	taldea	
Joxe Arizmendi Berakoetxea jn.	EA	taldea	(boz)
Agurtzane Antoñana Arizmendi and.	EA	taldea	
Jesus M.Lariz Orbezabal jn.	EA	taldea	
Manuel Iturrioz Perez jn.	EAJ	taldea	
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea	(boz.)
Julian Carrasco Obregon jn.	IU-EB	taldea	(boz)
Monica Marañon Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea	

BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Ricardo Hueso Abancens	PP	taldea	(boz)
Eneko Ándueza Lorenzo	PSE-EE (PSOE)		

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

INTERPRETARIA:

Garbiñe Mendizabal Mendizabal .



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

.- Julen Agirre Iturriotz jauna etorri da bilerara.

AZTERGAIAK

Alkateak esan du 3.puntuan Oiangu Bizirik plataformako ordezkari bati emango diola hitza, gero alderdi politiko bakoitzeko ordezkarietara eta gero mozioa bozkatuko dela.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2007ko martxoaren 29ko ohiko bilkurako akta onartzea
..... pág.3
- 2.- 2007ko apirilaren 27ko bilkura bereziaren akta onartu.
..... pág.3
- 3.- Oiangu plataformak aurkeztutako mozioa, Oianguren gainean herrian kontsulta egiteko eskatzen duena.
..... pág.3
- 4.- Oiangureneko Plan Bereziari behin betiko onarpena.
..... pág.3
- 5.- Toponimia jaso eta finkatzeko urte anitzeko kreditua onartzea.
..... pág.3
- 6.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzeko Ordenantza Fiskala aldatzeko.
..... pág.3
- 7.- Kreditu gehigarrien 5 zk.dun espediente onartu.
..... pág.3
- 8.- Zaharrentzako ekintzetarako Foru Aldundia eta Caixaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenera atxikitzearen berri ematea.
..... pág.3

AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

Ikusle ugari etorri da pankarak eskuan: "Errepresioa ez da bidea. Konponbidea".

GALDE-ERREGUAK

- AHT

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19,00 etan

AMAIERA: 20,40etan



Bilkurari hasiera eman eta gero, Lehendakariak lehenengo puntuaren berri eman du.

1.- 2007ko martxoaren 29an egindako ohiko bileraren akta.

Proposamena

2007ko martxoaren 29an egindako ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez da izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 3, EA 3, PSE-EE/PSOE 2, IU/EB1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (Manuel Iturrioz (EAJ) ez zelako bilera honetan egon)

Beraz Alkate andreak aurkeztutako akta onartutzat jo du.



Ondoren Alkate andreak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

2.- 2007ko apirilaren 27ko bilkura bereziaren akta onartu.

Proposamena

2007ko apirilaren 27an egindako aparteko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.



Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE (PSOE 1))

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 4 (Manuel Iturrioz, Monica Marañón, J.M. Lariz eta Julian Carrasco ez zierako etorri.)

Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo.



Ondoren, Alkate andreak eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du.

3.- Oiangu plataformak aurkeztutako mozioa, Oianguren gainean herrian kontsulta egiteko eskatzen duena.

Proposamena

Erregimen Lokalaren Oinarrien Legearen 70bis artikulua arabera, Herri Iniziatiba luzatzen dio Udalari eta horretarako Ordizian errolatutako 1454 adin nagusikoen sinadura aurkezten du Maiatzeko Udal Batzan mozio hau eztabaida dezan, Oianguri buruzko herri kontsulta martxan jar dezala eskatuz.

IKUSITA

- 1.- Udalak Oiangurako Onartu duen Oianguren aisigunea proiektuak zein eragin sozial eta ingurumenekoak izango dituen.
- 2.- Egitasmo horrek herrian zein kezka eta aurkakotasuna sortu dituen.
- 3.- Orain artean udalak ez duenez ordiziarren iritzia ezagutzeko inongo ekimenik burutu.

ZERA ESKATEN DIOGU UDALARI:

Ordiziarroi Oiangurako aukera edo proiektu ezberdinak eskeini, eta herri kontsulta bat egin dezala ezagutzeko zein den Ordiziarrok dugun iritzia, eta jasotako erantzuna aintzat hartuta joka dezala.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.



Eztabaida

Alkate andereak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Huesa and.

Edurne Huesak, "Oiangu Bizirik" platagormaren ordezkariak esan du Udalari aurkeztutako mozioak Oiangurako onartutako proiektuaren inguruko herri-kontsulta eskatzen duela, baita landu behar izan diren beste proiektuen gaineko kontsulta ere.

Tokiko Agenda XXlean asko hitz egin dela gaiaz, baita Plan Estrategikoan ere, eta herritarrei kontsulta eginez nahi du gaia garatu. Udalean ordezkariak duten alderdi politikoei eskatu die herritarren iritzia eskatzeko.

Berak esan duenez, demokrazia ez dute agintariek bakarrik egiten, baita herritarren hitzak ere.

Plan Bereziarekiko alegazioak aurkeztu dituztela esan du.

Gainera, ordiziarren sinadurak jaso dituzte herri-kontsulta eskatzeko, eta ez bakarrik Udalak orain bi urte onartutako proiektuaz, baita balizko beste proiektuen gainekoa ere.

Herritarren partaidetzaren gaineko Juanjo Gabiñaren artikulua irakurri du.

Carrasco jna.

Herritarren partaidetza saldu dela dio eta, beraz, bete beharreko konpromiso politikoa izan behar duela.

Dubreuil jna.

Bere garaian proiektuaren aldeko botoa eman zutela dio. Plan Bereziari ere aldeko botoa emango diotela, uste baitute plan horrek hau eta beste proiektu batzuk bideratzen dituela.

Berak esan du espedientean dauden estudio eta txostenek esaten dutela ez dagoela eragin larrik (COTPVren txostena), eta aldi berean, kontuan hartu behar direla burutu beharreko proiektu eta proiektuetan eragin ez dezaten neurri batzuk.

Gabiñarekin bat egiten duela dio, herritarren partaidetasunaren gainean. Udal aldizkaria horretarako planteatu zutela, herritarrei informazioa emateko xedez.

Hauteskunde programan ere Oiangura proiektua sartu zuten, Plan Bereziaren haritik, eta herritarren partaidetzarako araudia ere onartzeko behar diren urratsak eman asmo dituztela.



Aurkeztutako mozioaren aurkakoa izango da beraien jarrera, eta uste du benetako erreferenduma datorren maiatzaren 27an izango dela.

Alkatea and.

Alkateak, EAJ-PNV/EA koalizioaren izenean, esan du denok ezagutu genituela Baldintza Plegua eta lantzen ari zen proiektua, Oianguri balioa emateko gobernu taldea lantzen ari zena.

Jendaurrean egon zen ikusgai plegu hori eta eskaintzak aurkezteko lehen epean, proiektu bakarra aurkeztu zen.

Ezin da alde batera utzi 2 urteko lana. Gainera uste du, plataformak izan dituela 2 urte beste proposamen desberdin batzuk aurkezteko. Ez dute ezer aurkeztu. Ez da onargarria Udalari herri-kontsulta eskatzea hauteskunde atarian. Aurreko hauteskunde-egitarauan Oianagu bultzatzearen alde egin zuten eta paraje horri balioa ematekoaren alde, eta turismo eta aisiako beste neurri batzuekin batera, kirola eta natura lotuko lituzkeen proiektua bultzatu.

Sinadurak aztertu dira, Ordiziarren mila eta berrehun eta piku. Bere taldearen botoa mozioaren aurkakoa izango dela esan du.

Agirre jna.

“Ordiziarrek Gera” plataformako Agirre jaunak eskertu egin du “Oianguri Bizirik” plataformak egindako lana.

Eragin larririk ez dagoela esatea asko esatea dela esan du. Hori proiektua egiten denean ikusiko dela benetan.

Baina uste du, eragin larriak aparte utzita, badagoela “eragin soziala”, parkearen erabilera murrizten duena, alegia.

Legeak ezartzen duela herri-kontsultarako eskubidea eta hori Plenoan eztabaidatzea eta kontsultapean ez jartzea ez dela demokrazia.

Espedientearen gaineko informazioa ukatu zaie “Oianguri Bizirik” plataformakoei, baita “Ordiziarrek Gera” plataformari ere, eta Udalak arrazoitzen du esanez ez zirela espediente alde interesatuak.

Berak uste duenez, ez dago Udalean ordezkari den alderdirik, 1400 botu baino gehiago lortuko duenik, plataformak lortu duen kopurua dena, alegia.

Dubreuil jaunak herritarren partaidetzaren gainean egindako hausnarketa, hau da, hauteskunde ondorenerako uztea, ez zaio serioa iruditzen. Arazoa orain dago.



Dubreuil jna.

Gizarte Ongizateko alorrean eta beste batzutan egiten diren ekintzetan, bere iritziz, herritarren partaidetza behar dela erantzun dio, baina partaidetza hori arautua izan behar duela. Plan Berezia onartzeko unea dela uste du, eta gero onartu beharko litzatekeela proiektua.

Huesa and.

Proiektua Ikena enpresari eman zitzaiola esan du, eta parkearen ustiapeneko esleipena enpresa horri ematea Donostiako administrazioari auzi-epaitegian dagoela.

Berrito esan du Plan Estrategikoan ez dela inolaz ere, aipatutako proiektua ezertarako aipatu.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andereak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 1 (IU/EB 1)

Aurkakoak: 9 (EAJ 4, EA 3, PSE-EE/PSOE 2)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate andereak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andereak hurrengo puntuaren berri eman du .

4.- Oiangureneko Plan Bereziari behin betiko onarpena.

Proposamena

PLANGINTZA A D 30-Oianguren Parkea antolatzeko Plan Berezia onartzeko tramitatzen ari den espedientearen berri ematen da, Udal honek sustatutakoa eta Miguel Pérez Septién arkitektoak idatzitakoa.

2006ko irailaren 19an onartu zen hasiera batean, eta jendaurrera jarri zen legeak ezarritako modu eta denboran, eta 2007ko urtarrilaren 9an behin behineko onarpen-erabaki bidez ebatzi ziren egindako alegazioak.



Lurzoruaren eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 97.4 artikulua arabera, Euskal herriko Antolaketa Batzordera bidali zen espedientea, eta horrek eman zion Plan Bereziari aldeko txostena.

Gainera, Plangintza, Ebaluazio eta Ingurumen Kontrolerako Zuzendaritzak Plan Bereziaren Ingurumeneko Eraginaren Behin betiko Txostena egin zuen, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua betez, zeinetan ezartzen diren sartu edo, hala balegokio, arrazoitu beharreko hainbat gogoeta.

Onartutako alegazioetatik eratorritako aldaketak jasotzen dituen Testu Bateratua aurkeztuta, eta Ingurumen Eragineko Behin Behineko gogoetak sartuta, txostena egin diot Udal Arkitektoak, eta aldeko irizpena eman dio Obra, Hirigintza eta Ingurumen Delegazioak.

2007ko maiatzaren 2ko Plenorako Gaiaren Batzordeak irizpena eman dio proposamenari.

Horiek horrela, honako hau proposatzea erabaki dute

AKORDIO PROIEKTUA.

*** Oianguren Landa Parkea Antolatzeko Plan Berezia onartu, 2007ko apirileko testu bateratuaren arabera**

*** Aldi berean, uztailaren 22ko 183/2003 dekretuko 23.1 artikulua betez, Eragin-Azterketaren Ebaluazio Bateratuko prozedura arautzen duenaren arabera, Planean dauden ingurumen-alderdiak dituen aldarrikapena onartu. (I eranskina)**

*** Ingurumen-Eragineko behin betiko Txostenean dauden iradokizunak justifikatzeko agiriari adostasuna eman, Planean ez daudenak (II.Eranskina).**

***Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onarpeneko erabakia argitaratu, testu arauemailea eta I eta II Eranskinak barne.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:erabatekoa.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Huesa and.

Horren gainean esan du Eusko Jaurlaritzako bi txosten daudela.

Horietako batean esan da, Planaren hainbat alderdien gaineko dokumentazio edo arrazoiak ez direla behar adinakoak, eta Udalari hainbat aholku ematen dizkiola. Bere ustez, txostenak alferrik dira.



Aldeko txostenak direla, baina hainbat aholku anbiguorekin.

Metodologiaren gaineko informazioa falta da zona bakoitzean egin behar den erabilera zeini zango den zehazteko.

Alkatea and.

Aurregogoeta batzuk kontuan hartu direla erantzun dio, eta kontuan hartu ez direnak, arrazoituak izan direla, Ingurugiro Eraginaren Azterketari buruzko 183/2003 Dekretuak dionaren arabera.

Arizmendi jna.

Plan Bereziak, hain justu, hori duela xede erantzun dio, espazio libreak non izango diren zehaztea- Zona desberdinetako erabileren intentsitate-metodologiarako, Domingo Merino teknikariaren txostena jarraitu da, zeinak dioen non gertatzen diren erabilera gehien.

Hemendik aurrera, Plan Bereziak erabilerak finkatzen ditu eta gero, proiektu zehatzak dagokion ingurumeneko organoaren aurrean tramitatu beharko dira, eta Euskal Herriko Lurralde Antolaketarako Batzordearen aurrean (COTPV).

Eduarne Huesa

Proiektua onartzen bada, erabilira publikoa murriztu egingo dela uste du.

Aldi berean jakin nahi du, behin Plana onartzen denean, ze tramite eta urrats jarraitu behar diren.

Idazkariak eman du horren berri.

Iturrioz jna.

Planteatutako proiektua burutzeko, proiektu exekutiboa idatzi behar dela eta horretarako, behar diren tramite guztiak egingo direla esan du.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andereak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, EA 3, PSE-EE/PSOE 2)

Aurkakoak: 1 (IU/EB 1)

Abstentzioak: 0



Beraz Alkate andereak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

5.- Toponimia jaso eta finkatzeko urte anitzeko kreditua onartzea.

Proposamena

Ordiziako toponimia jaso eta finkatzeko lana egitea onartu da 2007ko aurrekontuetan. Horretarako, beka-deialdia egingo da eta, behin bilketa-lana egindakoa, lan hori azaltzeko behar den euskarriez baliatuko gara. Aurrekontua guztira 54.423 eurokoa izanik. Beka-deialdirako 14.000,0 euro behar dira eta Euskaltzaindiaren tutoretza-lana egiteko, berriz, 1.200,- euro beharko direla aurreikusten da.

2008an argitalpenerako 39.223 euroren %40a beharko da (15.689,2.-€) eta 2009ko ikus-entzunezkoetarako, berriz, 39.223 euroren %60a (23.533,8 €).

Lana argitaratzeko jaso dira 2 aurrekontu, Ametzagaina SLren bat, eta A2 S.Coop. enpresarena bestea, lehen enpresarena izanik eskaintzarik hobereena. Aipatu enpresak aldaketa bat sartu du aurrekonturako egindako proposamenean eta honako hau da:

2008ko urtarrilean (39223 / 2 x 1,03)	20.199,85 euro
2009ko urtarrilean (39223 / 2 x 1,06)	20.788,19 euro

Gipuzkoako Toki-Erakundeetako aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 18ko 21/2003 Legearen 22 artikulua ezartzen duenaren arabera, baimena onartzen den urteaz geroztiko ekitaldietara luzatzen diren gastuetarako konpromisoak onar daitezke.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau onartzeko proposamena egiten zaio Osoko Bilkurari

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Honako oinarri hau erantsi 2007ko Aurrekontua betetzeko oinarrietan:

xx.oinarria. Ordiziako toponimia jaso eta finkatzeko lana egiteko 3 urtetarako gastu anitza onartuko da, honako banaketa honen arabera:

2007beka + euskaltzaindia	15.200 €
2008ko urtarrilean (39223 / 2 x 1,03)	20.199,85 euro



2009ko urtarrilean (39223 / 2 x 1,06) 20.788,19 euro

2.- 2008rako 20.199,85,- euroko urte anitzeko gastua onartu, 2007ko aurrekontuaren ordainketa-kredituaren jarraipen gisa.

3.- 2009rako 20.788,19,- euroko urte anitzeko gastua onartu, 2007ko aurrekontuaren ordainketa-kredituaren jarraipen gisa. Hori guztia, Ordiziako toponimia jaso eta finkatzeko lana egiteko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 10 (EAJ 4, EA 3,PSE-EE/PSOE 2 IU/EB 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

6.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzeko Ordenantza Fiskala aldatzeko.

Proposamena

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzeko Ordenantza Fiskala aldatzeko.

Eguzki-plakak jartzea bideragarria izan dadin, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergan hobekuntzak egiteko aukera aztertu da.



Martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauak, Zergetako Sistema Lokala berritzekoak, 5 artikuluko 4.atalean ezartzen du, autokontsumorako eguzki-energia berogailu edo argiteriarako sistemak jartzen diren eraikuntza, instalazio eta obren aldeko kuotetan %95eko hobariak jartzeko aukera ematea.

Energia alternatiboen erabilera sustatze aldera, Udala dinamizatzen ari den Tokiko Agenda XXIlean aurreikusitakoak, eta 2007ko maiatzaren 2ko Plenorako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpena jasota

AKORDIO PROIEKTUA.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren Ordenantza Fiskal Arautzailea aldatu, eta 8.artikuluaren honako atal hau sartu, "salbuespen eta hobariak" atalean:

"Zergaren kuotan %75eko hobaria ezarri, autokontsumorako eguzki-energia berogailu edo argiteriarako sistemak jartzeko kostuaren zatiari dagokionean, beti ere instalazio hori norberak bere borondatez jartzen duenean eta indarrean dagoen araudiak eskatzen ez badu".

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiaren amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 10 (EAJ 4, EA 3, PSE-EE/PSOE 1 IU/EB 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

7.- Kreditu gehigarrien 5 zk.dun espedientea onartu.

Proposamena

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
	KREDITU-IGOERA	
623.313.81.02	Jubilatuenerako instalazioak	12.000,00
625.313.99.02	Gizarte Ongizateko bulego-ekipoa.	6.000,00
623.422.12.02	Urdaneta ikastetxea Larrialdi Planera egokitu.	21.506,62
601.511.00.10	Industrialdeako espaloia txukundu.	1.474,24
		40.980,86
	FINANTZAKETA	
870.01	Diruzaintza soberakina	40.980,86

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 10 (EAJ 4, EA 3, PSE-EE/PSOE 2 IU/EB 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

9.- Galde-eskaria.

Jendartetik Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren gainean galdetu dute.

Alkateak esan du Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailarekin harremanak izan dituela, informazio eta partaidetzako foroak antolatzerik ba ote zegoen Ordiziarrentzat. Ezetz esan zitzaion. Ez dute egokitzat jotzen eta herritarrentzako hiru-orriko moduan bidaltzeko hitza eman zuten.

Obraren hasiera dela eta, Alkateak esan du lizitazio-prozesuarekin hasi behar zela, baina ez daki obrak noiz hasiko diren. Dena den, Eusko Jaurlaritzak hitz eman zuen Udalari jakinaraziko ziola behar zen denboraz. Dena den, esan du ez duela ordiziarren egunerokotasunean eraginik izango.



Eta beste aztergairik ez dagoenez, Alkate andreak bukatutzat eman du bilera eta nik, Behin-behineko Idazkariak, bertan esandakoa honako honetan jaso eta ziurtatu egin dut.

